

BERRI OROKORRAK

2019ko maiatzaren 10ean 30. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Hizkuntzarekiko harreman ona eskaini nahi badiegu... Gertukoa zaintzetik hasi.

Etxeko hizkuntza zaindu eta hizkuntzarekin jolastu: ahalik eta hizkera aberatsena eskaini, euskararekiko jakin-nahia, hizkuntzarekin jolastu, jokabide koherenteak ikus ditzatela...

Erraustegiaren kontrako manifestazio deialdia.

Maiatzaren 11ean, larunbata, arratsaldeko 18:00etan Lasarteko Okendo plazan egingo den manifestaldiarekin bat egiten du Usurbilgo GuraSOS taldeak eta bide batez bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztete.

1.-Jangelako erabiltzaileei zuzendutako bilera deialdia.

Jangela zerbitzuaren antolaketa berriaren nondik norakoak azaltzeko, **maiatzaren 16an**, osteguna, arratsaldeko **17:00etan** Ikastolako **jangelan**, bilera egingo da.

2.-Bazkideen artean zozketa.

Joan den astean esan bezala, Udarregi ikastolako bazkide erabiltzaile eta laguntzaile guztien artean Idiazabalgo Atxeta Gaztandegiko bi gazta zozketatu ziren. Irabazleak **Insausti Aizpurua eta Salsamendi San Sebastian** familiak izan dira. **Zorionak!**

3.-Artezkaritza kontseilua eta Zaintza Batzordea berritzeko prozesu parte-hartzailea.

Bazkide agurgarria Artezkaritza kontseiluak, Artezkaritza kontseiluaren (AK) eta Zaintza Batzordearen (ZB) berritze prozesua hasia duela jakinarazi nahi dizue. Prozesu honen helburua familien parte hartzea bermatzea da gurasoon ordezkari izango diren kide berrien aukeraketan. AKn gauden guraso ordezkariok Ikastolako familia guztiak ordezkatzeko ditugu eta bertan eztabaidatu eta erabakitzen diren gaietara familien ahotsa eraman behar dugu. Garrantzitsua da organo horretan familien kezka, postura eta ikuspuntu anitzak mahairatzea.

Hurrengo maiatzaren 30ean egingo den Batzar nagusian jarraian izendatzen diren kideak ordezkatzeko dira, isilpeko bozketan:

- Oihana Sagarna, Jon Rekondo, Gorka Goiatxe (AK)
- Jon Korta (ZB)

Bazkide orok mezua jasoko du hautagaien zerrendarekin eta galdetegiarekin bozka bidaltzeko. Prozesu horretan parte har dezazun animatzen zaitugu duen garrantziagatik!

4.-Agerialdeko frontoiaren estaltzea aukeratzeko prozesu parte-hartzailea

2018 Ikastolako Batzar Nagusian Agerialdeko frontoia estaltzea adostu zen ikastolako beharrei egokiago erantzuteko. Izan ere, ikastolak dituen espazio estaliak gutxi baitira. Hori horrela, Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak ideia-lehiaketa bat antolatu du proiektu hori nola egingo den erabakitzeko. Eta proposamen horiek jasota, Agerialdeko frontoia estaltzeko proiektuaren aukeraketa egiteko parte-hartze prozesua irekitzea erabaki du familia eta ikasleei.

Aurkeztutako proiektu horietatik horretarako osatutako batzorde tekniko batek bi proiektu lehenetsi ditu

jada, eta Ikastolako komunitateari bi proposamenen artean proiektuen diseinua bozkatzeko aukera emango dio: A proiektua eta B proiektua. Bazkideen bozka gehien jasotzen dituen estaltze proiektua aintzat hartua izango da egikaritzarako.

Parte hartzea ahalik eta handiena izan dadin, Ikasleekin gaia gelan landua dago eta eskura banatu zitzaizen bozkatzeko inprimakia. Aldi berean, Alexia bidez ere iritsiko zaizue, irudien kalitatea ahalik eta hoberena izateko, zuri-beltzean kalitatea galdu egiten bait dute irudiek.

Eskerrik asko eta animatu parte hartzera!

5.-Elikadura hitzaldia: “Etiketak irakurtzen ikastea: teoria eta praktika”.

Erosketa osasungarria egiteko ezinbestekoa da produktuen etiketak irakurtzen ikastea. Horretarako, Hitz-Aho guraso elkarteak hitzaldi teoriko-praktiko bat antolatu du maiatzaren 22rako arratsaldeko 17:00etan DBHko eraikinean.

6.-Kilometroak 2019ko denda ibiltaria Usurbilen.

Igande honetan, Usurbilen San Isidro azoka izango da eta Zarautzko ikastolak jakinarazi digu Kilometroak 2019ko denda ibiltaria bertan izango dela Kilometroetako arropa eta osagarriak saltzen.

OHARRAK ETAPAKA




Ez dago berririk.



1.-HHko ikasleen irteerak.

HH3: Datorren asteartean, maiatzak 14, egun osoko irteera egingo dute Donostiako Kristina-eneara.

HH4: Datorren asteazkenean, maiatzak 15, egun osoko irteera egingo dute Pagoetako Parke Naturalera.



1.-Sexualitatearen inguruko kezkak eta jakinminak asetzeko hitzaldiak gurasoentzat.

Beste urteetan gurasoekin burututako sexu heziketa programetatik ateratako galderak, kezkak eta gaien inguruko gogoeta egin eta gure seme-alabekin hitz egitea errazteko bi saioko tailerra egingo da.

Helburuak:

1. Sexualitatea balore bat dela ikustea. Sexualitatearen kontzeptuari azaleko hurbilpena luzatzea.
2. Seme-alaben, haur sexualitatearen ezaugarri orokorrak (haurrak non dauden kokatuak) ezagutzea.
3. Sexu heziketaren onurak ikustea.
4. Heziketarako gakoak eskuratzea. Identitate anitzak (transexualitate egoera eta jokaera ez normatiboak), erotika, errespetuzko harremanak, ardurak, eskubideak... kontzeptuak lantzea.

NOIZ: Maiatzaren 14an eta 20an 17:00etan.

NON: Ikastolako jangelan

Ikastarora etortzeko asmoa izango bazenute, eskertuko genizueke beheko paper zatia beteta tutoreari ematea **maiatzaren 13a (astelehena) baina lehen.**

Sexualitatearen inguruko tailerren parte hartuko dut.

Izen-abizenak:

Seme/alabaren maila:

Sinadura:

2.-Ikastola eguneko bazkari-antolaketaren berrikuntzak.

Jada, LH6. mailako aurtengo gurasoak ekainak 15ean ospatuko dugun bazkariaren antolaketan hasiak dira. Norbaitek izenik ez badu eman, gogoratu, denon parte hartzea beharrezkoa dugula. Animatu zaitzete!!

Bestalde, jakin, aurten bazkaria Hurbilago Ostalaritza Taldeak antolatuko duela eta guztiok elkarrekin bazkalduko dugula haur eta helduok. LH 1. mailatik aurrera, ikasleek taldeka esertzeko aukera izango dute. Astero informazio gehiago zabaltzen joango gara.

3.-Zirimara 2019/20 ikasturtean.


Datorren **asteazkenean**, hilak 15, 2019-20 ikasturtean Zirimaran izango diren aldaketak azalduko dizkizuegu **Sutegin** burutuko dugun bileran. Bileraren arratsaldeko **19:00etan** izango da eta gai ordena honako hau:

- Noauarekin lortutako akordioa.
- LH 5-6 eskaintza berria.
- Ate irekiak.
- Hobekuntza neurriak: Egokitzapena eta ezagutza jolasak.

*Oharra: atxikita esku-orria bidaltzen dizuegu.

4.-LH 4ko ikasleak Sastarrainera.

Maiatzaren 15ean eta 16an 4. mailako ikasleak ikasturte bukaerako irteera egingo dute Sastarrainera. Irteera ordua 9:30ean izango da eta ostegunean 16:30ean ikastolan izango dira.



1.-DBHko gurasoei zuzendutako saioa: HarremOnak.

Datorren **asteartean**, maiatzak 14, arratsaldeko **17:00etan** **DBHko eraikinean**, ikasleekin landutakoaren berri emateko HarremOnak taldekoek, bilera antolatu dute.

2.-DBH 4ko ikasleen irteera.

DBH 4. mailako ikasleak, datorren ostiralean, maiatzak 17, 12:30etik 14:30era Kabiene, herriko sormen gunea, eta Elhuyar ezagutzera joango dira.